

46 klubek 85.000 euroko laguntzak jasoko dituzte PlanÁren kirol laguntzetarako

Helburua da klubek gastu arruntarekin laguntzea 2020ko uztailearen 1etik 2021eko apirilaren 30era arte

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urriaren 13a. Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailak Arabako lurralde historikoko eta Trebiñuko enklabeko kirol klub eta elkarteak mantentzeko dirulaguntzen deialdia ebatzi du, zeinak 46 klubi egingo baitie mesede, guztira 85.841,33 euroekin.

Zehazki, onartutako eskaeretatik 21ek (% 45,7) 2.000 euro eta gehienez ere 2.875,07 euro artean jasoko dituzte. Haietatik 18k 1.000-2.000 euro jasoko dituzte (% 39,1), eta gainerakoek, 7k, 1.000tik behera, betiere gutxienez 205,36 € (% 15,2).

Deialdiaren xedea izan da dirulaguntzak ematea kirolaren sektorearen indarberritzea sustatzeko eta, bereziki, COVID-19aren eragina jasan duten lurraldeko kirol klub eta elkarteak mantentzeko. Diruz lagundu ahal izango dira 2020ko uztailearen 1etik 2021eko apirilaren 30era bitartean egindako gastu eta kontzeptu hauek: instalazioen alokairua, kredituen amortizazioa, aholkularitza eta gestoria, komunikazioa eta zabalkundea, lizentziak, fitxak, izen-emateak eta kirol mutuak, bulego eta kirol materiala, eta abar.0}

Ana del Val Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuaren hitzetan, “Gastu mota horiek joan den denboraldi guztian zehar mantendu ziren eta laguntzari esker, iaz bezala, klubek arindu ahal izango dute, hein batean, pandemiaren ondorioen inpaktua, nahiz eta badirudien orain ia normaltasun osora itzuliko garela”.

Laguntza hori gehitzen zaio, besteak beste, Kirolaraba fundazioak emaniko 225.000 euroko dirulaguntzari. Haren bidez, goi mailako klubak lagunduko dira diruz, eta hura ere Arabako kirolerako erreskate plan bihurtu da; izan ere, aurtan, aldaketak egin dira oinarrietan.0}

Gainera, aurtan, aurreikusita aukera handiagoa egongo dela kirol ekitaldiak egiteko, bereziki urteko bigarren seihilekoan, 136.000 euro gorde dira horrelako ekitaldiak edo haiei loturikoak bultzatzeko edo babesteko. Zenbateko horretatik 90.000 euro kirol arloan PlanÁrako aurrekontuan jasotako gainerako diru kopuruari lotuta daude, eta eskura dagoen ia % 100 izango da. 2021ean, PlanÁren guztizko gastua 2020ko bera izan da: 180.000 euro.